



Jose Antonio Egaña  
*Txapasta*

## «Nirekin bukatu dira Euskal Herriko pikatzaileak»

Bilboko zezen plazako langileek errespetuz agurtu dute eta harmailak igotzen hasi arte ez da pixar bat ere trakestu bere ibilkera segurua. Herrena antz eman diogu eskuin belauneko; ia 40 urtean zaldi gainean plazan ibili denarentzat hutsa da herren hori, bidesari ttikia. Vista Alegreko harmailetan kontatu dizkigu bere sentipenak, plazara seinalatuz han sentitzen zituenak esplikatzeko.

JON ARTANO

Argazkiak: Ines Urrutia

“DEBAN (GIPUZKOA) JAIO NINTZEN 1945EAN. Urte eta erdi nuela Txapasta baserrira igo ninduten, Itziartik Lasturrera bidean dago Txapasta. Aitaitak Andutz mendibarrerean izaten zituen larrebehiak eta zezenak. Han sartu zidan afizioa aitaitak, Francisco Egaña Eizagirrek”. Hara hor labur-labur azalduta, Euskal Herrian izan den azken zezen pikatzailearen biografiako giltzarria.

Aitaitaren ‘erruz’ orduan?

Bai. Sei urte nituela aldatu zen familia Bilbora. Baserritik irten beharra zegoen denontzat lain

ez zegoen eta. Nik ordea Txapastan ematen nituen udako hiru hilabete. Han ganadu artean ibiltzen nintzen, gustura. Zekorketak, soka-muturrak eta enbolatutarako igual izango zituen 50-60ren bat buru, Karrikiri arrazak. Hemengo arraza zen hura.

Galdu egin al zen arraza hori?

Berezko Karrikiri kasta Atanasio Fernandezek erosi eta Salamankara eramane zuen. Gero gurutzaketa lardaskan jardun eta arraza galdu zuten. Sanferminetako feriako zezen suharrenari Karrikiri saria ematen diote orain.

## Bertsolari zezenzalea, Egaña eta zezen jenioz bizia

Xenpelarri esker dakigu *jenioz biziya* zen zezen bat Pasaia plazaan, eta plaza-tik kanpora, *notiziya* izan zela. Zezen hura Andutzpean hazitakoa zen, Lastur bailaran (Gipuzkoa). Iñaki Azkune historiagileari esker dakigu hori. Andutzetik bertan, Endoian, jaiotako beste bertsolari batek, Uztapidek, hara zer kantatu zuen Zestoa-ko festez ari zela: *"Zaindariaren egun berean/ festak egiten ziraden / urruti bizi izanagatik/ gu ere joaten ginaden;/ nola mendiko baserri baten/ jaiotakoak geraden,/ hango lenengo galdera beti/ zezenak bai al diraden"*. Eta beti izaten ziren, Zestoa, Itziarren, Deban... eta Lasturren, jakina. Ez baita festarik horietan zezenik gabe. Ingurumari guztian zezenak garrantzi itzela zuen eta epizentroan, Andutzpean, ibiltzen zen Jose Antonio Egaña, Txapasta, aitonagandik aziendak nola gobernatu ikasten: *"Zakuekin estaltzen genituen... gero ardi larruak hartu eta... Hara, beste mundu bat zen. Huraxe eza-gutu nuen nik ume-umetatik eta barruan eraman izan dut beti arra"*. Arkadiatz ari bailitzan mintzo da Egaña praka luzeak jantzi aurretik utzitako sorlekuaz. Esaldiak erdizka uzten ditu oroitzeak galdutakoaren mina ekartzen diolako agian. Edonola ere, "mundu hura" beretzat nola-koa zen hobeto azaltzen du den-dena hitzez esan gabe. "Denok genuen afizio gogorra zezenentzat, familia guztiak. Aitak ere, gazte garaitan, egiten zuen zerbait Itziarko jaietan larrebheien aurrean".

Deban zezenetarako grina ez da atzo goizeko kontua. Balenarrantza egiten zenean adibidez udaberrian joan eta udazkenean itzultzen ziren gizonak lehorrera. Etixeratzea ospatzeko Itziarrera igotzen ziren elizako zimitorioan zezenak korritzera. Balea desagertu eta gero ere eutsi zioten marinellakorridei. Jose Antonio ez da izan Deban jaiotako lehendabiziko profesionala. Beste Egaña batek egin zuen txuliatzeko abildadea ogibide berak baino dezente lehenago. Manuel Frantzisko Egaña Itziar Debako Kale Zaharrean jaio zen 1826an eta *Ehulea (Eulia)* izenez egin zen ospetsu.

Deban zezenetarako grina ez da atzo goizeko kontua. Balenarrantza egiten zenean adibidez udaberrian joan eta udazkenean itzultzen ziren gizonak lehorrera. Etixeratzea ospatzeko Itziarrera igotzen ziren elizako zimitorioan zezenak korritzera. Balea desagertu eta gero ere eutsi zioten marinellakorridei. Jose Antonio ez da izan Deban jaiotako lehendabiziko profesionala. Beste Egaña batek egin zuen txuliatzeko abildadea ogibide berak baino dezente lehenago. Manuel Frantzisko Egaña Itziar Debako Kale Zaharrean jaio zen 1826an eta *Ehulea (Eulia)* izenez egin zen ospetsu.



Lasturgo harana Aittola aldetik. Atzean, behelainotan erdi ostenduta, Andutz.

Mendetan irten ziren zezenak Lasturdik euskal eta erdal herrietako plazetarantz. Arrazarik preziatuena zen bertakoa. Zergatik ez da gaur zezen kasta hori ikusten Sanferminetan Iruñean edo Sanisidrotan Madrilan? Galdera horren erantzuna ere Iñaki Azkunerik hartu diogu duela hogeitau urte aldizkari honetan bertan egin zioten elkarrizketa batetik (<http://www.argia.com/argia-astekaria/1160>). Azkunek defendatzen du zezen korritzea Euskal Herriatik esportatu zela hegoalde nahiz iparraldera, XVIII. mendean. Eta hor hasi zela bertako arrazaren azkena, nahiz eta "gaur egun ere, bazeudek arrastoak; miurek euskal arrazaren bereizgarriak dizkitek. Toreaketak bide estetiko-plastikoetatik jo zuenean, akrobazia alde batera utziz, arraza hau [Euskal Herrikoaz ari da] goitik behera etorri huen, biziagia bai huen. Horretan zerikusi handia izan ditek andaluzek, bere folkloreaxn esku mugimenduak dik garrantzia; euskalduna berriz hanketan oinarritzen duk. Horregatik hemengo zezenak desagertuz joan hituen". Alegia, zezena jenio biziagiak galdu zuela.

**Txapastan unai ibiltzetik Vista Alegre bada tarte, nola sartu zinen Bilboko zezen giroan?**

Lagunak egin eta pixkanaka-pixkanaka. Zezenzaleak leku jakinetan elkartzen ginen. Pedro Pradera Bernaolaren zalditegian hasi nintzen ni. Zaldirik onenak eman dituen ganaduzalea izan da Pradera, asko lagundu ninduen. Vista Alegren zaldientzako ukulua egon izan da berak erretiroa hartu duen arte. 14-15 urterekin zaldimutill hasi eta 20ren batekin koxka igo eta profesional jarri nintzen. Ez nintzen, jakina, horretaz bizi, baina asko entrenatzen nuen. Astebururo etorri, zaldiak hartu, mendira joan, petoak jantzi...

**Eta aurreneko plaza?**

Vieux Boucau, Landetan, 72an. Hara nire debuteko kartela: Victor Mendes portugaldarra, *El Soro* eta Felipe Gonzalez *Felipillo* mexikarra.

**Zer moduzkoa izan zen?**

Erantzukizunak sortzen zidan ardura, beldurra baino gehiago. Beldurra izaten da, dudarik-eta ez, inor ez gara beldurrik ez sentitzeko bezain balienteak. Baina leku handiagoea du ardurak: zezena pikatu behar da, nola edo hala. Hori da arazoa. Ate ondoan zaudela, plazara sartzeko zain sentitzen da beldurra. Gero,





turuta hotsa aditu, zezena atera eta beldurrak uxatzen dizkizu. Huts-hutsean beldurra sentituko banu etxean geratuko nintzateke.

**Toreatzaile jakin baten koadrilakoa izaten dira pikadore batzuk. Zu ere bai?**

Francisco Marcos *Marquitos* Lizarrako toreatzailea hasi zenean, dozenerdi urtean, erretiratu nintzen arte, ibili nintzen berekin.

**Ia 40 urtean pikatzen, kinka larriak biziko zenituen...**

Plazan honetan bertan bota nau zezenak zalditik pare bat aldiz. Ene, epelak hartutakoa naiz. Zartakoak ezker-eskulin; adarkadarik ez baina hezur hausturak mordoska bat bai: sorbalda, meniskoa... Belauna operatu eta ondo jarriko zidala esan zidan Bikandi doktoreak, Athleticetako arduratzen da mediku hori, baina... kirofanora sartzeak errespetua ematen dit, zezenak baino gehiago.

**Latzena?**

Santoña-n, zaldia eta biok hankaz gora bota gintuen zezenak. Zaldiak azpian harrapatu eta ezin aterata geratu nintzen ezproia sokatan trabatu zitzaidan-eta. Ezin atera eta zezena bueltan-bueltan... Atera kontuak gorpuzkera handikoak direla pikatzeko zaldiak. Lor-aberea da berez, lanerakoa. Norbera gaínean egoteko ondo, baina alderantziz...

**Bakoitzean zaldi berriarekin pikatzen al duzue?**

Beti berria. Plazara joan, begiak estali, petoa jantzi eta han irteten zara batere jakin gabe zezenaren topekada hartzean nola erreakzionatuko duen. Batzuetan eusten diote baina behin baino gehiagotan atera zaizkit galapan. Nola hala animalia geratzen asmatuz gero gaitzerdi; osterantzean hartu egin behar barreraren kontra.

**Ganadutegiak ere denak ezagutuko dituzu.**

Cebada Gago-koak pikatu izan ditut. Horiek oso gogorrek dira. Egin kontu

*Txapasta, ahalegin  
betean Bilboko Vista  
Alegren.*

## Balmasedako plazako astindua

*"Balmasedan behin  
610 kiloko zezena  
pikatu nuen. Eta  
hangoa plaza  
eramangarri  
horietakoa da, txikia.  
Han eraman gintuen  
zaldia eta biok  
arrastan  
ezkutalekuaren  
kontra. Plaza osoan  
igarri zen astindua".*

*Arraza, indarra eta irteteko  
modua ikusita, jeneralean,  
segítuan antzematen diot  
zezenak eztenkada bakarra  
edo pare bat behar duen*

zezenik handienak eta indartsuenak ateratzen dituztela Madrilen, Iruñean eta Bilbon. Hemen jendeak zezen-zezena eskatzen du. Lekutako errespetua diote toreatzaileek Bilbori. Eta ni gehiena plaza honetan aritu naiz.

**Pikatzailereana ez al da lanik eskertzarrekoe-na? Zezenaren suhartasuna epeltzeko zaude-te, sarri-sarri ateratzen dizuete txistu hotsa ikusleek.**

Zezena pikatu egin behar da, bestela ezingo lukete muletaz faena egin. Oinarrizkoa da pikatzailerean lana, horrek baldintzatzen duelako ondorengoa. Behin Baionan Cebadako zezen bat jata odolhustu nuen ia. Ez nuen neurez jokatu horrela. Toreatzaileak esan zidan emateko egurra. Motor handiko zezena zen, ideia txarrekoa... Eman beharra zegoen. Urrunetik prestatzen zidaten eta etortzen zitzaidan bakoitzean gogotik ematen nion. Gozoa jarri zen publikoa, asto beltzarenak aditu nituen. Zaldien ukuiluan ezkutatu behar izan nuen gero.

Dena dela, zezenaren arraza, indarra, irteteko modua ikusita, jeneralean segítuan antzematen diot zezenak eztenkada bakarra edo pare bat behar duen, toreatzailearekin hitzik egin gabe.

**Orain bost urte hartu zenuen erretiroa. Zaila izan al zen erabakia?**

Beno, batik bat bidaiekin nekatua nengoelako utzi nuen. Astegunez familiako enpresan eta asteburuetan plazaz plaza ibiltzea gogorra da nik daukadan adinarekin. Oraindik joaten naiz noizik eta behin zekor gazteak tentatzera Burgos-era, Antonio Bañuelos-en ganadutegira... Baina nirekin bukatu dira Euskal Herriko pikatzailak. Gurea zen azken belaunaldia; ni izan naiz azkena. Ez dator berririk, ez dago afiziorik, ezta torerorik ere hemen izan dugun saldoarekin. Bilboko Aste Nagusian ondo aritu zen Iban Fandiño urduñarra da bakarra. Gaur eta hemen, errito soziala da zezenketa beste ezer baino gehiago, ferietan bakarrik azaltzen da jendea plazara.

**Ze etorkizun barruntatzen diezu zezenketei?**

Belaunaldika aldatzen da. 60ko hamarkadan askoz gartsuago bizi genuen, zezenzale gehiago eta osoagoak zeuden. Subalterno mordoa, dozenerdi pikatzaile, ia dozena bat banderillero... Festak segítzen du eta segiko du, baina beste modu batera.

**Eta zer sentiarazten dizu aldaketak?**

Horrela beharko du [etsia hartuta ari da]. Zuk ezagutuko duzu Derioko seminarioa... Ba, hura lehen apaizgaiz leporaino beteá egoten zen; joan zaitez orain... ■